·**Hilabete honetako gaia:** Musulmanak, Urretxu-Zumarragako merkatari berriak
·**Erreportajea:** Zer egin zuen Luzio Gabiriak? ·**Zuek bai jakin!:** Juan Mari Gabilondo
·**Izerdi patsetan:** Agustin Erostarbe

Herri Aldizkaria

Otamotz

2006ko
abendua
122. alea



ESKOLA PUBLIKOA





Urteak eman ditu
hainbat berri mota
guk pakeari jarri
nahi diogu nota
klabe horretan urte
berri on bat opa
egin esperantzaren
burbuiletan topa

J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
DBH-BATXILERGOA (A,D)
Erdi Mailako Heziketa Zikloa
"Erizaintzako Zaintza Osagarriak"
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

GAINZURI
Ikastetxea
URRETXU - ZUMARRAGA

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo elkartea. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 / 605 71 87 73 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Sebas Iturrioz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarrieta **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 6.000 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 **Hilabete honetako gaia**
Musulmanak, Urretxu-Zumarragako merkatari berriak.

08 **Erreportajea**
Zer egin zuen Luzio Gabiriak?

10 **Komikia / Egurra partitzen**

11 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Zer iruditzen zaizu Zelai-Ariztiko zuhaitz guztiak bota izana?

12 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

13 **Argazki zaharra**

14 **Kolaborazioa**
(In)migrazioaren hariari tiraka

16 **Klik eta klik**
Josu Pérez

20 **Zuek bai jakin!**
Juan Mari Gabilondo

24 **Gure gomendioa**

25 **Izerdi patsetan**
Agustin Erostarbe

28 **Gure aholkuak**

29 **Literatura**

30 **Boteprontoan**
Javier García de Andoin

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Musulmanak, Urretxu eta Zumarragako merkatari berriak

Aspaldi ohitu ginen gure herriko kaleetan arraza ezberdineko jendea ikustera eta, pixkanaka, esparru guztietara zabaltzen ari dira. Merkataritza txinatarren eta, batez ere, musulmanen kontua dela dirudi. Filipinar Uharteak kalea Marokon dagoela dirudi! Urretxun eta Zumarragan dendak dituzten Marokoko eta Pakistango hiru lagunekin hitz egiten izan gara.

Latifa Khaldoun: "Hango lasaitasuna botatzen dut faltan batez ere; hemen maileguak, fakturak, paperak... baititugu"



Latifa Khaldoun, bere bilobarekin, *Nora* mertzerian. Argazkia: Gotzon Aranburu.

Latifa Khaldoun duela 15 urte heldu zen Euskal Herrira, alargun gelditu eta gero. Hainbat familiaren etxeetan lan egin zuen. Gero, merkatuetan mertzeria produktuak saltzeari ekin zion eta beranduago denda ireki zuen Urretxun. Zumarragako Bidezar kaleko *Nora* mertzeriako nagusia da eta bere semeak harategia du ondoan.

Latifa Marrakexekoa da eta bertako ospitalean lan egiten zuen, garbiketa lanak egiten. Diru apur bat gehiago lortzeko, etxean mertzeria gaiak saltzen zituen. 1991n etorri zen. "Lagun batek ekarri ninduen. Donostian lan egiten zuen, etxeetan, eta niretzat ere lana aurkitu zuen, kontratu eta guzti. Bakarrik etorri nintzen. 1993an semea etorri zen eta gero alaba". Gainontzekoak bezala, bizimodu hobearen bila etorri zen. "Gazteleraz hitz egiten ere ez nekien. Etxeetan lanean hasi nintzen eta aurrera egitea lortu nuen. Semealabei ahalik eta gehien bidaltzen nien. Semea etorri zenean merkatuetan saltzea erabaki genuen. Gero, Urretxun denda txiki bat ireki genuen eta duela zazpi urte Zumarragara etorri ginen".

Merkatuetan lan egiten zuten urteetan ezagutu zituzten Urretxu eta Zumarraga. "Donostian etxebizitzak garestiagoak ziren eta jendeak hau toki ona zela esan zigun. Hasieran Urretxun bizi ginen, baina gero Zumarragan etxea erosi nuen".

Ez da Euskal Herrira etorri izanaz damu. "Marokon handiak txikia jaten du. Aberastasuna ez dago ondo banatua eta legeak ez dira betearazten. Hemen osasun publikoa hobea da eta bankuek maileguak ematen dituzte. Han duenari bakarrik ematen diote", azaldu du.

Latifa oso gustura dago bere lanarekin. "Hasieran arropa saltzen genuen eta gero mertzeria gaiekin hasi ginen. Ondo joan zaigu. Urretxuko dendan ezaguna egin nintzen eta txikia gelditu zitzaidan".

Berak aipatu bezala, oso ezaguna da. "Jainkoari eskerrak, jende asko ezagutzen dut. Ez naiz inoren kexu. Marokoarra naiz, baina hemen lortu dut bizitza aurrera ateratzea. Bilobak ere hemen jaio dira".

Marokoar jatorriko haur dezente daude dagoeneko ikastetxeetan, duela urte batzuk baino askoz ere gehiago. "Etorri nintzenean oso gutxi geunden. Orain gehiago gaude. Gainera, dendari eta semearen harategiari esker, asko ezagutu ditugu".

> *"Jende asko ezagutzen dut. Ez naiz inoren kexu. Marokoarra naiz, baina hemen lortu dut bizitza aurrera ateratzea"*

Harategian mertzerian baino euskaldun gutxiago sartzen dira. "Jendeak haragia hangoa dela uste du, baina hemengoa da. Berezitasun bakarra ganadua gure erara hildakoa dela da. Guk zintzurra ebakitzen diogu eta odolustu egiten dugu. Probatu dutenek gustuko dutela esan digute".


Erretiroa hartzen dutenean, badute dendak nori utzi. "Sei biloba ditut, hiru semearenak eta hiru alabarenak, eta gehiago nahi ditut. Euskara, gaztelera eta arabiera dakite". Musulmanek, orokorrean, semealaba asko dituzte. Euskaldunok ere geroz eta gehiago ditugula jabetu da Latifa. "Etorri nintzenean orain baino haur gutxiago ikusten ziren kalean", esan du. Hainbeste haurrekin, atseden hartzeko denbora gutxi du. "Goizean eta arratsaldean denda ireki behar dut. Eguerdian, berriz, etxeko lanekin eta haurrekin nahikoa dut. Bestalde, semeak ez du atsedenik hartzen asteburuan. Izan ere, orduan etortzen dira beste herrietako musulmanak aste osorako haragia erostera".

Euskal Herrian ere ez da erraza bizitza aurrera ateratzea. "Lan asko egin behar da". Latifa eta bere seme-alabak urtean behin itzultzen dira Marokora. "Ondo gaudela esaten diegu, besterik ez. Jendeak auto berria dugula ikusi eta hau paradisua dela uste du, baina hemen dena mailegu bitartez lortzen da. Anaia-arrebei hemen ere gauzak ez direla errazak esaten diet". Gainera, geroz eta zailagoa da Marokotik hona etortzea. "Alanbradako irudiak ikustea oso gogorra da, baina ezin dugu ezer egin. Gobernuen esku dago. Hori gelditu beharra dute, baina alde bateko eta besteko poliziak erosita daudela uste dut".

Latifak ez du Marokora itzultzeko asmorik. "Nire bizitzako garrantzitsuena seme-alabak eta bilobak dira eta horiek hemen daude. Nire ama Marokon bizi da, baina nire anaia-arrebek ondo zaintzen dute. Hango lasaitasuna botatzen dut faltan batez ere, hemen maileguak, fakturak, paperak... baititugu. Bestalde, senitartekoren bat hiltzen denean jaioterritik urrun egotea gogorra da".

Arrazakeria ez du pairatu, baina Madrilgo Atocha geltokiko atentatuen ostean oso gaizki pasatu omen zuen. "Ez dago jakiterik zein gaizki pasatu nuen, baina jendea oso ondo portatu zen. Herritar asko dendara etorri ziren, ondo ezagutzen nautela, nolakoa naizen badakitela eta lasai egoteko esatera", dio esker onez.

Rachid Errahali: "Herriz herriko salmentak behera egin duenez, harategia, mintzalekua eta jatetxea irekitzea erabaki dugu"



Rachid Errahali, Filipinar Uharteak kalean ireki berri duen jatetxean.

Rachid Errahali Samlali 1995ean atera zen Marokotik. Madrilera joan zen ikastera, baina ikasketak utzi egin zituen oso garestiak zirelako eta lan egiteari ekin zion. Duela gutxi harategia, mintzalekua eta jatetxea ireki ditu Filipinar Uharteak kalean. Emaztea eta bi seme-alaba ditu.

Hamar urte baino gehiago daramatza jada jaioterritik kanpo. "Bakarrik irten nintzen, ikasteko asmoarekin. Lau urte eman nituen Madrilen geologia ikasten eta tesia egiten ari nintzenean utzi egin nuen. Oso garestia zen familiarentzat. 1999an lagun batzuekin Euskal Herrira etorri nintzen eta lanean hasi nintzen. Paisaia gustatu zitzaidan gehien".

Gure herrialdean gelditzea erabaki zuen. Azoketan lan egin du orain arte, bere aitaginarrebarekin "Herriz herriko salmentak behera egin duenez, harategia, mintzalekua eta jatetxea irekitzea erabaki dugu. Alternatiba behar genuen eta ea ondo ateratzen den".

Bere negozioetan zer eskaintzen duen azaltzeko eskatu diogu. "Harategia jende guztiari begira ireki dugu, ez bakarrik musulmanentzat. Ganadua gure erara akabatzen dugu, baina gainontzeko guztia hiltzen den hiltegi berean. Gure haragiak gainontzekoaren osasun baldintza berak betetzen ditu. Zaporean apenas dago alderik", azaldu du.

Mintzalekuan, berriz, telefonoz beste herrialde batzuetara merke deitzeko aukera eskaintzen dute. "Etxeko telefono aparailua edota mugikorra erabiltzea baino merkeagoa da eta atzerritarrentzat probetxu handikoa da. Mintzaleku behar handia zegoen, etorkin kopurua asko igo baita azken urteotan. Lehen familia gutxi batzuk bakarrik geunden".

Jatetxea azaroa erdialdean ireki zuten. "Jendeari ezagutzera emateko lanean ari gara. Gainontzeko jatetxeetan bezala, eguneko menua eta karta ditugu. Gainera, Marokoko plater tipikoak eskaintzen ditugu: kus-kus, txitxi-burduntziak, plater konbinatuak, tearekin hartu behar diren gozoak... Alkoholdun edaririk ez dugu eskaintzen, baina nahi duenak etxetik ekar dezake. Goizeko 10etan irekitzen dugu eta afalostean itxi", dio.

Geroz eta gehiago dira musulmanek irekitako negozioak, baina Rachid-ek gehienak lantegietan ari direla dio. "%80 fabriketan lan egiten duela esango nuke. %20-edo soilik da merkataritzan ari dena".

Rachid gustura bizi da Euskal Herrian. "Ez dut integrazio arazorik izan. Beste toki batzuetan baino hobeto sentitzen gara eta bizilagun guztiekin ondo moldatzen gara. Espainia erdialdean eta hegoaldean, ordea, gutako batzuek arazoak dituzte".

Hala ere, gero eta gehiago dira Marokotik irteten direnak. "Han lan gutxiago dago eta jendeak alternatibak nahi ditu. Horietako bat Europara etortzea da. Askorentzat helburu bakarra da, bizimo-

dua hobetzeko modu bakarra. Beste batzuek han aurrera egitea lortzen dute".

Rachid-ek jaioterrian gelditzea aholkatzen die bere herrikideei. "Hemen gauzak gero eta zailagoak direla iruditzen zait. Marokon dena egiteke dago, merkatu birjina da eta ia negozio guztiek etorkizuna izan dezakete. Hemen, ordea, denetik dago jada".

Familia botatzen du faltan batez ere. "Bi anai etorri dira, baina gurasoak han bizi dira. Dena den, noizean behin etortzen dira. Zortea dugu, beste batzuek ez baitute denbora luzean etxekoak ikusteko aukerarik izaten".

Nazir Ahmed: "Pozik nago, jende asko etortzen baita: Kolonbiakoa, Ekuadorrekoa, Boliviakoa, Errumaniakoa..."

Nazir Ahmed pakistandarra duela sei urte irten zen bere herrialdetik. 2003an Euskal Herrira etorri eta lantegi batean lanean hasi zen. Iaz, berriz, Ipeñarrieta kalean denda ireki zuen. Bertan Interneten nabigatzeko eta atzerrira telefonoz merke deitzeko aukera eskaintzen du. Gainera, janari apur bat saltzen du eta Indiako filmak alokatzen ditu. Ez doakio batere gaizki. Berarekin izan ginen tartean herrialde askotako jendea pasatu zen dendatik.

Ahmed Gujerat eskualdekoa da eta nekazaria zen. Bere herrialdetik irten eta Bartzelonara joan zen lehendabizi. "Bertan, paperak lortzeko aukera izan nuen. Bartzelonatik Logroñora joan nintzen, handik Galiziara eta 2003an Gipuzkoara etorri nintzen", dio.

Bere iloba hemen zegoelako etorri zen. "Azkoitian zegoen. Berak bertan etxea erosi zuen eta orain nik Zumarragan erosi dut. Bertako jendea ona da eta oso gustura nago. Nire nagusiek, esaterako, asko lagundu didate etxebizitza erosteko eta denda irekitzeko orduan".

Gustura dago bere negozioarekin. "Mintzalekua, Internet eta atzerrira dirua bidaltzeko aukera eskaintzen ditut. Pozik nago, jende asko etortzen baita: Kolonbiakoa, Ekuadorrekoa, Boliviakoa, Errumaniakoa, Kubakoa... Izan ere, kanpoko jende gero eta gehiago dago. Bertakoak ere sartzen dira dendara".



Nazir Ahmed Ipeñarrietako kaleko mintzalekuan.

Urretxun eta Zumarragan Pakistango jende gutxiago dago, baina gero eta gehiago dira handik Euskal Herrira etorriak. "Zegaman, Azkoitian, Beasainen, Ordizian, Tolosan... herrikideak ditut, baina gutxi gara oraindik. Nirera etortzen dira telefonoz hitz egitera eta dirua bidaltzera. Izan ere, ez daude mintzaleku asko inguru honetan".

Pakistandarrak oraindik ez dira oso ezagunak gure artean. "Askok marokoarrak garela uste dute. Gu ere musulmanak gara, baina ezberdinak!", dio txantxetan.

Nazir Ahmed-ek herrimina eta, batez ere, familiamina du. "Ezkonduta nago, baina familia guztia han dut. Nire asmoa emaztea behintzat hona ekartzea da". Izan ere, Euskal Herrian luzaroan hemen gelditzeko asmoa du. "Dena atsegin dut, bizimodua oso lasaia baita. Janaria ere atsegin dut. Txerrikia ezin dut jan, baina gainontzeko guztia oso gustura jaten dut", dio.

Zer egin zuen Luzio Gabiriak?

Hilaren 9an Luzio Gabiriaren omenezko XIX. bertso jaialdia izan zen Zumarragako Zelai-Arizti aretoan. Aspaldi ekin zitzaion Gabiriaren omenezko bertso saioa antolatzeari, esparru horretan lan handia egindakoa zen seinale. Duela 20 urte hil zen, ordea, eta gazte gehienek ezer gutxi jakingo dute bere jardunari buruz. Nor zen Luzio Gabiria?

Gabiriako Bekoetxe baserrian jaio zen 1923an eta, bere seme Joxe Marik askotan entzun zionez, bertan sortu zitzaion bertsozaletasuna. Bospasei urte zituela harrituta utzi zuen etxe ondoko Argindegi baserrian entzun zuen bertso moduko batek. "Erantzun azkar eta dotoreak harridura ez ezik lilura eragin zion eta handik aurrera sarritan ibiltzen zen errimak bilatzen", dio Joxe Mari Gabiriak.

Beste asko eta asko bezala, lanak ekarri zuen Zumarragara. Foru Aldundiko langilea zen eta 1957an hona bidali zuten. Gero Aurrezki Kutxa Probintzialean lan egin zuen, bulegoa ireki zenetik jubilatu zen arte. Ofizioak asko markatu zuen, bezeroekin harreman oso zuzena baitzuen, baina zaletasunek ere bai. Gizon jantzia zen, asko irakurtzen baitzuen, eta bere kabuz euskaraz alfabetatua. Dena den, literatura baino gehiago bertsoa maite zuen.

1961ean Zumarragako lehen bertso afari ofiziala antolatu zuen, beste lagun batzuekin batera, Galeperra elkartean. Ordurako Urretxuko Pasiotarren babesean euskara eta euskal kultura suspertzeko lehen ahaleginak abian ziren. Helburu berarekin, hango antzerki taldean parte hartzeaz gain, bertsolaritza bultzatzea erabaki zuen.

Ordura arte bertsolariak gehienetan binaka eta gai jartzailerik gabe aritzen ziren. Galeperrakoa izan zen bertso afarian artean lehenengoetakoa. Lehiaketa ere bazen. Inguruko bertsolariek parte hartzen zuten eta epaimahaikideak Joxe Lizaso eta Lazkao Txiki izaten ziren.

1961etik 1967ra bitartean antolatu ziren zazpi ekitaldietan bertsolari askok parte hartu zuten: Zaldibiako Patxi Iraolak, Gabiriako Euxebio Igartzabalek, Segurako Jesus Imazek, Telleriarteko Patxi eta Agustin Belokik eta Brinkolako





Ordiziako Jakintza Asteko bertsolari gazteentzako sariketan epaile. Ezkerretik eskubira: Luzio Gabiria, Joxe Mari Aranalde eta Antonio Zavala.



Gabiriarekin bertsotan hasi ziren haurrak: Jon Balenziaga, Unai Izagirre, Iker Telleria, Itziar Salaberria, [illegible]one Aldalur, Antziñe Agirre, Maier Rodríguez eta Gorka Garmendia.

Jesus Alberrok, Bittor Agirrek eta Iñaki Azarolak, besteak beste.

60ko hamarkada bukaeran Galeperra elkarteko zuzendaritza aldatu zen eta sartu berriek bertso lehiaketarekin ez jarraitzea erabaki zuten. Gabiria ez zegoen amore emateko prest ordea, eta bere jaioterrira eraman zuen saioa. Bertan Osinalde elkartea egiten ari ziren eta Euxebio Igartzabalekin batera Osinalde Saria jarri zuen abian. Lehiaketa hau gazteentzako antolatzen direnen artean garrantzitsuena da egun.

Luzio Gabiriak bere jaioterritik eta Zumarragatik kanpo ere lan egin zuen. Aizpurutxoko eta Zeraingo saioetan, esaterako, askotan aritu zen gai jartzaile. Gainera, lehiaketa askotan epaile izan zen: Idiazabalgo Zepai eta Errenteriako Xenpelar sariketetan, adibidez.

Horretaz gain, Juan Mari Balenziaga lagunarekin batera, Urretxu eta Zumarragako lehen bertso eskola jarri zuen abian. Balenziagak primeran oroitzen du saiakera hura. "Bertsolari eta bertsozale gazteak behar zirela ikusita, 1970 inguruan Ikastolako haurrei bertsoak irakasteari ekin genion. Hainbat alditan Arabako txapelketa irabazi duen Asier Otamendi, adibidez, gurekin hasitakoa da", dio.

Bi herriotako auzoetako festa batzordeetatik haurrekin kantatzera joateko deitzen zieten. Auzoz auzo ibilitako bat Juan Mariren semea da: Jon Balenziaga Euskadi Irratiko esataria.

"Joseba Apaolazak nire aitak idatzitako bertsoa kantatu zion Xalbadorri", oroitzen du Joxe Mari Gabiriak

Gabiriak Zumarragan Xalbadorri egindako omenaldia ere bultzatu zuen. Anoetan txistuak entzun ondoren eskaini zitzaion lehenengoa izan zen. "Xalbadorrek eta Uztapidek gure etxean lo egin zuten eta antzokia leporaino bete zen. Artean ume koxkorra zen Joseba Apaolaza aktoreak nire aitak idatzitako bertsoa kantatu zion Xalbadorri", oroitzen du Gabiriak.

Izan ere, epaimahaikide, gai jartzaile eta antolatzailea ez ezik, bertsolaria ere bazen. "1972an herriko bertsolarien txapelketa antolatu zen Gabirian eta aitak irabazi zuen", dio. Txapelketa hartan Iñaki Muruak ere parte hartu zuen.

Baina, nolakoa zen Luzio Gabiria lanetik eta bertso mundutik kanpo? Semeak ehiza, arrantza, perretxikoak eta bere jaioterria asko maite zituela oroitzen du. "Lehen Zumarragako eta Gabiriako festak garai berean izaten ziren eta 17 urte bete nituen arte ez nuen santaixabelez gozatzeko aukerarik izan". Juan Mari Balenziagak, berriz, bere umorea azpimarratu du. "Broma zalea zen, gazteen artean ibiltzeko aproposa. Bestalde, bertsolari sena zuen".



egurra partitzen

Jon & Jon

Bejondeiala Gargamel



Atal honen helburua herri hauei gure errepasotxoa ematea da, eta hortik izena. Makina bat arrazoi baditugu: espekulatzaileak, udal antidemokratikoak, sasifolkloristak, fundamentalista funanbulistak... Hala ere, atalari, inguru puta honetan gutxitan eman ohi den ekintza batekin ekingo diogu: zuzen eta artez egindako lan bat zorionduz.

Inoiz testuren bat zentsuratu digun arren, Otamotz berria estreinatzen dugun honetan, beste inork egingo ez duela eta, bidezkoa iruditu zaigu gure kaleak bere argazki makina eta bizikletarekin alderik alde zeharkatu dituen pertsonaia honi gure eskerrak ematea. Izan ere, jendeak uste baino buruhauste askoz gehiago ematen du halako aldizkari bat hilabetero kaleratzeak.

Amaia eta Balentxiren lana jarraituz, Asier izan dugu Otamotzen arima, hotzari aurre egiteko hiru galtzerdi pare beharrezkoak ziren lokal zaharrean hasi eta paperez bete duen gela goxoagoan orain. Elkarrizketa eta erreportajeek utzi dioten tarte apurrean pasatu da gure Asier taberna zuloak uztetik Euskal Herriko errepideak bere makinan zeharkatzera, Ducadosak alde batera laga eta sekula barkatuko ez diogun urretxuartze prozesura. Erabaki zail eta gogorrak guztiak, zuzenak batzuk eta okerrak besteak.

Urte hauetan guztietan anekdota ugari izan dira. "Kaleko galderan" irteteko ile apaindegira joan nahi zuen emakumearen istorioarekin hasi eta azken hauteskundeetan Zumarragako Udala galtzearen erruduntzat aldizkari hau jo zuen alderdi politikoaren *pataleta* arte. Nahiago genuke bai halako indarra izan, baina lasai, dena helduko da. Antzeko lanetan gabiltzanok zortzi urte hauetan utzi duzun nekea eta osasuna zenbaterainokoa izan den ondo dakigulako, sarrio ko(s)mikoaren eta pottoki marmartiaren partez, bejondeiala Gargamel!

Zer iruditzen zaizu Zelai-Arizti parkeko zuhaitz guztiak bota izana? Behar bezala egin dela uste al duzu?



Matilde Muñoz



Zuhaitzak gaixo zeudela esan dute eta ez dakit hala den, baina besterik gabe kendu dituztela dirudi. Egun batetik bestera bota dira eta, nire ustez, herrian halako aldaketa ekarriko duen egitasmo baten inguruan hausnarketa zabalagoa egin beharko litzateke.

Rufino Mateos




Ez nekien zuhaitz guztiak bota behar zituztenik eta pena handia hartu dut. Izan ere, Zelai-Arizti ikastetxean ikasi nuen eta nire haurtzaroko oroitzapen asko zuhaizti honi oso lotuak daude.

Pilar Manzano



Ez nekien zuhaitzak bota behar zituztenik eta pena ematen du. Ez naiz hemengoa, baina Zumarragako toki esanguratsua zela esango nuke. Faltan botako dela uste dut.

Bienvenido Pascual



Ez nekien hasieran esan baino aparkaleku handiagoa egin behar zenik. Obra bukatzen dutenean zuhaitzak jarriko dituztela suposatzen dut. Hala bada, ez zait gaizki iruditzen egin dutena. Dena den, urteak pasako dira zuhaitz berriek itzala ematen hasi aurretik.

Gaia: Urteko azken egunak

Doinua: Txepetxarena

Bertso eskola




Bi mila eta seigarrenean
gustura gara egonak,
igaro dira une tristeak
ta baita momentu onak.
Maitatu gaitu lagunak, amak,
anaiak edo amonak,
berriro ere bere zakuan
sartu gaitu zorionak,
urtea ziztu batean joan da
ta heldu dira Gabonak.

Urte zaharreko gau magikoan
alboan utzirik lotsak,
ez bitez egun hauek bilaka
aspergarri eta hotzak.
Nahiko genuke zoriontsuak
izatea guztiontzat,
urtea pozik amai dezagun
adituaz kanpai hotsak,
itxaropenak piztu ditzala
herritar denon bihotzak.

Munduan zehar izan ditugu
gerrak eta sarraskiak,
oroimenean iltzatzen diren
urteroko argazkiak...
Behin Olentzerok bete ondoren
opariz ohe azpiak,
urte berriak eskaini ditu
bere lehenengo izpiak,
seiak ekarri ez duen oro
ekar dezala zazpiak.

iritziz iritzi

Andoni Salamero



Uraz gozatzen, uraz osatzen

Tantaka, tantaka ari naiz idazkitxo hau idazten eta melatuz doaz sentipenok orrian. Kanpoan hezetasuna, azkenean!. Bat baino gehiagok amorrua izango du, agian. Nik, ordea, barrua askatu, aterkia eskutan hartu eta jolasti banoa kaleetan barna. Ez dago hezetasunaren zaflada baino plazer handiagorik, berak garbitzen zaitu, bizirik zaudela aditzera ematen, lozorrotik esnatu eta izatearen bustiduran errepararazten ditu zure bihotz-begiak era maitekiro eta naro batez. Bidean zehar pausoen aztarnak, zure arrasto galduak, zarenaren eta izan zaitezkenaren lekukotasun ezinbesteko dituzu gogaide eta bidaide. Bat aurrera, bigarrena atzetik, hirugarrena joan denaren hutsunea betetzera... zer eska diezaiokegu gehiago une hauei? Horixe besterik ez, bizitzea eta intentsuki gureak egitea, baina ez une labur eta itzal batez, gozo-gozo, xalo-xalo sirimiria bezalaxe.

Zafladak ekarri du zaparrada, guztia da sinfonia orain, guztia dago urez hornitua eta jantzia, natura bera urak berak janzten baitu. Ura... urri zaigun premiazko elementua, ura, aspaldiko lagun zaharra, gu izanez gugan dirauena, gu ere ura gara eta. Bestela irakur: *Ai gizaki! / gizakitxo! ez gutxietsi ur-negarra; / tantanak sortzen baitu, / eta tantana... / zeruak!*

Zaindu zure ura, zugan eta inguruan dirauen ura, eta jaso bedeinkapen gozoz sentipenon jarioa.


60ko hamarkada

La Salleko futbol txapelketan ateratako argazkia.

Goiko ilaran: Pedro Lekuona, Jazinto Bastarrika, Anjel Idiakez, Joakin Aizpuru eta Ildefonso Etxeberria.

Erdiko ilaran: Manuel Etxaniz, Esteban Txintxurreta, Jesus Aldalur eta Jesus Mari Fernández de Lezea.





(In)migrazioaren hariari tiraka

Ibon Garmendia

Lekaio Kultur Elkartea

Otamotzek aurpegi berria aurkeztu digun honetan, lehenik eta behin, eskertu egin nahiko genuke iritzia emateko tartea utzi izana. Kaleetan, Otamotzekoaz gain, hainbat aurpegi berri ari dira azaltzen: etorkinak hain zuzen ere. Horrela deitzen diegu kanpotarrak direlako. Multzo plural eta gero eta handiagoa osatzen dute.

Ezezagunak beti ematen du zeresana eta inmigrazioaren gaia noiz edo noiz denon ahotan egoten denez, gai hau sakonago aztertzea erabaki genuen Lekaio kultur elkarteko kideok. Gaia lantzeko ideiak asko izan badira ere, hiru hitzaldi burutu ditugu eta erantzuna ikusita jendartean kezka badagoela ikusi dugu.

Lehenengo hitzaldian Urretxun jaio eta lehen urteak bertan bizi izan zituen Jon Maia izan genuen. 60. hamarkadan lehen jende uholdea bizi izan genuen herrian eta lehen txokearen bizipenei buruz hitz egin zigun. Hitzaldi honetan ikasi genuen gauzetariko bat izan zen, orain arte euskaldunon komunitatean gutxitan azaldu izan zaigun bertsioa ere badagoela. Etorkinek eta beren ondorengoek bizi izan dituzten bizipen, sentsazio eta askoren konplexuen berri eman zigun Jon Maiak. Urretxutik Zumaira joatean lagunartean sumatu zituen aldaketek eta kontraesanek bere bizitzan izan duten eragina azaldu zigun. Baserritarren eta euskararen desprestigioaren bertsioa askotan entzun izan dugu, baina *belarrimotx* edo *maketoen* bertsioa gutxitan ezagutu ahal izan dugu bertatik bertara.

Lehen inmigrante horien gaia alde batera utzirik bigarren saio bat izan genuen. Bertan, gaur egun Euskal Herrian etorkinek izan dezaketen papera eta aurrera begirako erronkei buruzko gogoeta izan genuen. Obdu eta Victoria izan genituen solaskide eta beraiek Euskal Herri soberanista batean sustraiak ezin dituztela ahaztu gogorarazi ziguten (dena den beti gogoan izan behar dugu Bertold Brech-en esaldi hau, *gogoaren kontra, egoerak behartuta, herria, sendia, etxea utzi behar duena ez da inmigrantea, erbesteratua baizik*). Integrazioaz aritu ziren eta herri honetara etorri badira eskubide eta betebehar guztiekin etorri direla esaten ziguten. Komunitate bakoitzetik onena aukeratzea eta aprobetxatzea da biderik zentzuzkoena; hartara, denok batera aurrera egitea lortuko dugu eta ez aurre egitea. Euskaldunoi zera leporatzen ziguten, etorkinei inork ez diela azaltzen euskal kultura zer den eta hemengo ohiturak zeintzuk diren. Badaukagu zer landu.

Hirugarren hitzaldian, berriz, azken urte hauetan gure artean ezagunak egiten ari diren lau protagonista izan genituen. Jendaurrean lan egiten dutenez, gehienok ezagutzen ditugu: Patagonia jatetxeko Mercedes Sías (argentinarra), Galeperra elkarteko langilea den Tatiana Tancheva (bulgariarra), Palacio Oriental jatetxe txinatarreko Yang Xian Jun (txinatarra) eta Urretxu-Zumarragan 30 urte pasatxo daramatzan Driss Elmssioui merkatari eta herriko mezkitako arduraduna (marokoarra). Bakoitza mundu desberdin batetik etorri denez, bakoitzak bere esperientzia pertsonala azaldu zigun. Garbi dago lauak merkatariak izanik ekintzaileak direla, beren herrian ezin bizirik edo zerbait hobea aurkitzeko esperantzan bidaia bati ekin baitzioten. Beraien sentimenduak, bizipenak, ilusioak... plazaratu zizkiguten eta beraientzat normalak diren kontu batzuk eta guretzat hain arrotzak diren beste batzuk beraien ahotik entzuteko parada izan genuen.

Hiru saio hauen ondoren Lekaiok balorazio txiki bat egin du eta hemen zabaldu nahi genuen. Hiru jardunaldi hauekin garbi daukagu ez dugula gaia errotik heldu eta landu, besteak beste, etorkinen inguruan hamaika gai baititugu lantzeko. Gaiari aurten atera diogun argazkiarekin gustura gaude, baina gaur egun ez denez oso ederra, ez gaude koadro batean eskegitzeko prest. Batik bat euskal komunitatearentzat izan dira interesgarri hiru jardunaldi hauek eta hitzaldietan eman den partehartzearekin neurtu ahal izan dugu. Bukatzeko, aurrerantzean gizarte talde eta kultur taldeon artean landu beharreko gaia dela pentsatzen dugu, batik bat datozenek gizarte jantzia merezi dutelako.

ALEX-GIBOLAS
alejandro albisua
☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

ATS
HARATEGIA URDAITEGIA
✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.
Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak
Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com





SUTAN
Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

Lorea
Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak
☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88
Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

HERCE
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392
20700 URRETXU

natural optics
URRETXU
Lurdes Rodriguez
Optiko-optometrista
Iparragirre,1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

colors
arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA
Iburreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

orain
jantziak
Labeaga, 51 - URRETXU
☎ 943 53 38 24
Zorionak eta urte berri on!



BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak...
Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

UROLA
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

Herri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!


BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta fax: 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



Gorka, Jon, Markel eta Ander Udabe.




Erostarbe, Antia, Pérez de Albeniz eta Oliveira.


Asier Orbegozo.


Markel Babarro.


Ibai Aranburu.


Gorka Otagui.



Ibai eta Asier, nor baino nor.




Josu Otaegi.


Beñat Ibáñez.




Ale honetan Urretxuko pilota eskolako haurrak dira protagonistak. Bertatik atera da egun maila bikaina ematen ari den Aritz Lasa pilotaria. Azkenik, Zumarragan jokatu zen frontoi motzeko zesta punta partidako bi argazki ere ikus ditzakezue.

Josu Pérez


Aritz Lasa.







SASIETA MANKOMUNITATEAK eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.

2007an ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.

Gogoratu, urtero bezala, jaien ondoren gabonetako **PINUEN BILKETA** egingo dugula konposta bihurtzeko. ***Traste zaharren egunean atera behar dira.***

www.sasieta.net

SASIETA
MANKOMUNITATEA

kulturaren plazerra

elkar
elkar ezagutzen dugulako

www.elkar.com

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

Herri Aldizkaria

Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

-Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
-Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
-Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

-Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
-Urtean 12 euro.

-Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkartea
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
-Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
zm@euskalnet.net

	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

Juan Mari Gabilondo: atzoko eta gaurko mendizaleen maisu

Gutxi izango dira mendizaletasunaren alde Juan Mari Gabilondok bezainbeste egin dutenak. 40 urte baino gehiago daramatza lanean, lehenengo Oargui elkartearen mendi taldean eta gero Ostadarren. Euskal Herriko paraje ederrenak bere eskutik ezagutu dituzte herritar askok eta askok. Gure lurra primeran ezagutzen du, sei herrialdetako ehunka mendi igo baititu.



Juan Mari Gabilondo, Ostadar mendi taldearen egoitzan.

Non jaio zinen Juan Mari?

Zumarragar peto-petoa naiz, udaletxean jaio nintzen! Garai hartan balkoiaren solairua soilik hartzen zuen Udalak. Etxebizitzak ere bazeuden. Azpian gu bizi ginen eta gainean aguazila. Gainera, egun sarrera dagoen tokian, *Mordo* taberna zegoen. Ostatua zen eta tabernakoak ere bertan bizi ziren.

Non egin zenituen ikasketak?

Hermanotan ikasi nuen, ofizialtza egin nuen eta Orbegozon hasi nintzen lanean, 16 urterekin. Maiatzean aurre-jubilatu nintzen. Oso gustura nago. Oraindik sasoi onean naiz eta egun guztia niretzat dut. Dena den, orain ere denboraz larri ibiltzen naiz. Izan ere, Ostadarren gehiago laguntzen dut, gehiago bidaiatzen dut...

40 urtetik gora eman dituzu lanean, lehenengo Orbegozon eta gero Arcelorren. Denetik ikusiko zenuen...

1962an hasi nintzen lanean eta sekulako miseria zegoen. Kanpotik etorritakoek oso gogor lan egin behar zuten eta oso gutxi irabazten zen. Grebak ere ezagutu genituen. Mutil koskorra nintzen garai hartan eta lehen lerroan nengoen. Gehienak CCOOkoak ziren eta gazteok propaganda botatzen eta antzerako lanetan aritzen ginen. Legez kanpokoa zen, noski. Franco hil zenean ELAn sartu nintzen eta delegatua izan nintzen.

Nolatan hasi zinen mendian?

Eraikin hau, orain besteak beste Ostadarren egoitza hartzen duena, parrokiarena zen. Oarguiren bulegoak hemen zeuden. Oargui zen herriak kultur ekitaldiak antolatzen zituen bakarra, elizaren babespean. Mutikotan hona etortzen ginen, jolasak eta taberna txiki bat baitzeuden. Telebista eta liburutegia ere jarri zituzten. Hemen Oarguiren mendi saileko Manuel Iraola, Urkiola... ezagutu genituen eta beraiekin mendira joaten hastea erabaki genuen. Lehen irteera hartan Silverio Buronek, Ignacio Carrillok eta hirurok izena eman genuela gogoratzen dut. Hurrengo urtean dagoeneko domina bat eman ziguten, irteera asko egin genituelako.

"Oarguiren mendi saileko Manuel Iraola, Urkiola... ezagutu genituen eta beraiekin mendira joaten hastea erabaki genuen"

Azkar hasi al zinen laguntzen?

1968 inguruan mendi saileko arduradun jarri ninduten. Guk antolatzen genituen mendi irteerak. Garai hartan ia inork autorik ez zuenez, trena hartzeko edo inguruko mendietara joateko aukera bakarrik genuen. Urbian, Aralarren... mendi talde indartsuak ezagutu genituen. Gurea oso pobrea zen: ez genuen materialik, ez kanpin dendarik... Izan ere, Oarguik gauza asko antolatzen zituen (argazki lehiaketa, danborrada, errege kabalgata...) eta bazkideek oso diru gutxi ordaintzen zuten. Ez zen ia ezertarako heltzen eta udalek ez zuten dirulaguntzarik ematen. Ia diru guztia merkatariei eta herritarrei eskatuz lortzen genuen. Hori dela eta, Oarguiren barruan mendi taldea sortzea erabaki genuen 1970ean: Izazpi. Gure zuzendaritza genuen eta materiala erosteko aparteko dirua jartzen genuen.

Lagun asko zenbiltzaten?

20 bat lagun izango ziren saltsa hartan genbiltzanak. Pioletak eta kanpin den-



1975eko abuztuan Mont Blanc mendian. Ezkerretik eskubira: Gurutz Larrañaga, Juan Mari Gabilondo, Aitor Mujika eta Joxe Aranguren.


1976ko maiatzean, Hiru Erregeen Mahaia mendian.

dak erosi genituen, txangoak antolatu genituen... Autobusa betetzen zenean soilik joaten ginen: betetzen ez bazen, Barretxeri deitu eta bertan behera geldi-tu zela esaten genion. Ez genuen, orain bezala, dirulaguntzen babesa.

Nora joaten zineten?

Candanchura egiten genuenak arrakas-ta handia izaten zuen. Gorbeara, Anbotora... ere joaten ginen. Beranduago, irteera egutegia egiten hasi ginen, lehiaketak antolatu genituen, domina banaketak, Belokiko gurutzea-ren urteurrena... Babes beharra geroz eta txikiagoa zen eta, pixkanaka, Oargui elkarteak desegin egin ziren. 1982an Eusko Jaurlaritzak elkarte bakoitzak bere estatutuak izan behar zituela agin-du zuen eta Oarguik Gipuzkoa osorako bakarra zuen. Gazte talde batek Ostadar sortzea erabaki zuen eta guk beraiekin elkartzea erabaki genuen.

Mendizaletasunari dagokionez, asko aldatuko ziren gauzak ordutik hona.

Dena aldatu da: mendizaleen maila, arropa, garraioa... Orain egun bakarre-rako joan daiteke Pirinioetara. Ni 20 bat urterekin joan nintzen lehen aldiz eta garai hartan hiru egun behar genituen joateko bakarrik: trenean Altsasura, han beste tren bat Iruñera, gaua zelairen batean pasatu eta hurrengo egunean, goizean goiz, autobusean Huescara, handik Barbastrora... Benasquera biga-rren eguneko gauean heltzen ginen. Oporretan bakarrik joan gintezkeen ber-tara. Abentura zen, baina oso polita. Garai batean lau katu ginen han ibiltzen ginenak eta aterpetxeetan nahi adina toki izaten genuen. Urtero joaten hasi ginen eta dagoeneko 3.000 metroko mendi nagusi guztiak igo ditut. Gazteek ospetsuenak ezagutu nahi dituzte beti eta batzuetan sei edo zazpi aldiz izan naiz Ostadarrekin. Dena den, jendea zaletzeko eta gozarazteko bada, oso gustura joaten naiz.

Zein da urte hauetan guztietan zirrara handiena eragin dizun mendia?

Pirinioetan igo nuen lehenengoa, Perdido mendia. Pirinioez han zeudela besterik ez genekien eta joan ginen lehen aldian 3.000 metrokoa igotzea sekulakoa izan zen.

Nondik nora ibili zara Euskal Herriko mugetatik kanpo?

Nire helburu nagusia Mont Blanc zen eta 1975ean igo nuen. Hemengo lau lagun joan ginen, beste Oargui batzuetako kideekin: Aitor Mujika, Gurutz Larrañaga, Joxe Aranguren eta ni. Alemaniako Alpeetan, Jugoslavian, Eskandinavian, Grezian... ere izan gara. Urte batean, Nepalera joan ginen tre-kking egitera. Pakistan, India eta Nepal ezagutu genituen, mendi handietan sartu gabe. Izan ere, niri ondo zapal dai-tezkeen tokiak gustatzen zaizkit.

Gainera, Ehun Mendien Lehiaketan parte hartzen duzu. Nolatan?

Federazioak Euskal Herriko tokiak eza-gutzera emateko lehiaketa hori abian jarri zuen. Ez zuen nahi jendea beti toki beretara joatea. Mendien zerrenda bat dago eta egunean bakarra igo daiteke. Bost eta hamar urte bitartean igo behar dira 100 mendi. %20 Euskal Herritik kanpoko mendi ezagunek osa dezakete. Lehen ehunak oso erraz egiten dira, baina pixkanaka urrutirago joan behar da. Dagoeneko 500 mendi baino gehia-go igo ditut.

Zerrendako gailur guztietara igotzea lortuko duzula uste duzu?

Oraindik beste ehuneko batzuk egiteko

asmoa dut. Ahal dudan bitartean jarraitu egingo dut. Elkarteko lanak denbora kentzen dit, baina orain jubilatuta nagoenez... Lan egiten nuenean ez nintzen egunero joaten mendira. Orain, Beloki, Irimo... aldera joaten naiz egunero eta tarteka zerrendako gailurren batera igotzen naiz. Igandetan astegunetan lehen baino gehiagotan ibiltzen naizela nabaritzen dut.

Bestalde, argazkilaria ere bazara.

Beti gustatu izan zait egon naizen tokiko oroigarria izatea. Lehen aldian eguraldi txarra egiten badu, eguraldi ona egiten

"20 urterekin joan nintzen lehen aldiz Piriniotara. Garai hartan hiru egun behar genituen joateko bakarrik"

duenean itzultzen naiz argazki hobea ateratzera. *Foto Luz* dendan kamera erosi nuen 20 bat urterekin eta hala hasi nintzen. Ordutik, makina asko erosi ditut. Nire kabuz ikasi dut. Ostadarren Mendi Astean ia urtero erakutsi ditut nire diapositibak. Milaka ditut.

Zure bizitzako makina bat ordu eman dituzu mendian.

Ez dago zenbatzerik. Ezkongabea naiz, bestela ez zen posible izango. Izan ere, ia astebururo eta oporretan urtero mendira joan naiz. Hemendik kanpora, nahiago dut taldean joan. Toki ezezagunen batera bakarrik joaten banaiz, bertako jendearekin hitz egiten dut eta aholkua eskatzen diet. Jendeak oso ondo hartu nau beti Euskal Herriko toki guztietan. Guztiei eskerrak eman beharrean nago. Garai batean ez zegoen egungo dokumentaziorik eta galdezka heltzen ginen tokietara.

Herrian bertan lagun asko egingo zenituen Ostadarri esker.

Urte hauetan guztietan mendian ibili diren guztiak ezagutzen ditut: agiriak egitera etortzen direla, pioleta hartzera... Garai batean gobernadorearen baimena ere behar zen Pirinioetara joateko. Egun, berriz, 20 urteko edozein mutikok egun bakarrean egiten du Perdidora joan etorria.

Ba al duzu hitzez azaltzerik mendia zuretzat zer den?

Asebete egin nau beti: argia, usaina, gailurra, paisaia, argazkigintza, errekaren soinua, ur jauziak... mundua da. Mendia ez da gailurrera igotzea bakarrik, nahiz eta batzuk bidean ez duten ezer ikusten.

Une ahaztezinak biziko zenituen...

Zailtasunak gainditu ondoren gailurrera heltzea gauza handia da. Kolperik latzena, berriz, Anjel Etxeberriaren heriotza izan zen.

Nola ikusten duzu mendizaletasunaren egungo egoera?


Gauzak asko aldatu dira. Garraiobideak eta informazio jarioa direla eta, jende asko bere kontura joaten da. Politena jende horrek mendi taldeen irteeretan ere parte hartzea izango litzateke, baina ulertzen ditut. Guk ere, gaztetan, erronkak eta zailtasunak atsegin genituen. Pena da, Ostadarrekin eta Goierrirekin egiten diren mendi asko ez baitituzte ezagutzen. Horregatik hasi nintzen hemen inguruotako diapositibak ematen mendi astean.

Musika ere atsegin omen duzu.


Juan Carlos Irizar, Benito Lertxundi... entzutea asko gustatzen zait. Ostadarren mendi irteerak prestatzeko, mendira joateaz gain, dokumentazioa landu behar da eta musika oso ondo dago irakurtzen ari naizenerako. Eskiatzea ere atsegin dut, nahiz eta jada ez dudan gaztetan bezainbeste arriskatzen. Legaristi zenarekin ikasi nuen. Bere garaian fenomenoa zen.

Ehiztaria ere ba omen zara.

Bolada batean asko aritu nintzen, baina ibiltzea atsegin nuen batik bat eta eskopeta bastoiarengatik ordezkatu nuen. Gainera, atzenerako, argazki kamera eramaten nuen eta usoak pasatzen zirenean, tiro bota beharrean, argazkia ateratzen nien. Mendiari zukua atera diot, mendian egin daitekeen guztia egin dut: argazkiak atera, eskiatu, ehizan, perretxikoak bilatu...



1968ko abuztuan, Aneto mendian, Joseba Jaka zenarekin.



Andoni Salamero

Bide ertzeko printzak

Andoniri darion maitasuna neurrigabea da bere maitasunaren iturburua Maitasuna delako. Berarentzat gizakia eta izadia jainkozko errealitate maitagarriak dira eta bide ertzeko printzetan ere aurki daitezke bizitzaren misterioaren aztarnak. Horrela sentitu ditut nik, behintzat, poema-liburu honetako otoitz poetikoak, airezko gogoetak, une magikoak, emozio biziak, barne intuizioak, etsipen txikiak, benetako egiak, izaki arruntten xarma bereziak... Eta lakuko ur geldira botatako txintxarriek bezala, poemek uhinak eragin dizkidate buru-bihotzean. Bestalde, Cadiernoren marrazkiak (arinak eta lirainak) poemen lagun ezin hobeak dira. Finean, arima elikatzen duen liburu ederra. A! Eta Olentzero-Erregetarako opari ona. Gainera, erreklamazio-orriak bezala, Andoni eskuragarri duzu berarekin poemez hitz egiteko!


Pello Biain

Bob Dylan

Modern times

Bobby maitea: Inork ez dik artista handiaren izen eta izana kenduko, baina aho handi samarra ez ote haizen bihurtzen... 20 urteotan ez omen dik inork disko on bakar bat bera argitaratu. Harrapazak! *Memoriaren mapa* non galdu duan galdetuko dik akaso Ruper Ordorikak. "*Non dira?* artista batek bere kideekiko behar lituzkeen errespetuzko hitzak", asaldatuko zaizkik Bide Ertzeanekoak. Gurean azkenaldian plazaraturiko ale batzuk baino ez dituk, tanta batzuk musikaren ozeanoan. Akaso urrun geratuko zaizkik, baina hurbilagokoei erreparatzea ere baduk. Zer diok Bonnie Prince Billyren *The Letting Go* hunkigarriaz? Tom Waitsen *Orphans* azken obra erraldoiaz? Hire hitzak umorez hartu eta egon badauden lan ederrez gozatzea diagu onena. Hire azken *Modern Times* zoragarriaz, esaterako.

Gorka Erostarbe





Desayuno con diamantes

Blake Edwards

29an, 22.15ean, *Desayuno con diamantes* filma doan ikusteko aukera izango da Zelai-Ariztin. Nobelaren idazleak, Truman Capote-k, istorioa zinera moldatuko zela jakin zuenean, Marylin Monroe-n pentsatu zuen. Holly-ren pertsonaia Audrey Hepburnek baino hobe egingo duenik ez da egon, ordea. Audrey filma hasi eta *Tiffany's* bitxitegiaren ondoan liluragarri agertzen den eszena zinearen historiaren zatitxo bat da. Holly zenbait gizonen opariei esker bizi den neska buruarina da. Egoitza berean Paul izeneko idazle bat bizi da. Arrakastarik ez duenez, gigolo bezala aritzen da emakume batentzat. Paul Holly-z maitemintzen denean, egoera aldatu egingo da guztiz. Hepburn Givenchy-k jantzi zuen eta elegantzia kanon bihurtu zen. Henry Mancini-ren musikak ere filma hau ahaztezin egiten lagundu du.

ButaK 21 zineklub taldea

Agustin Erostarbe: pilotari nekaezina

Erostarbe bi herriok eman duten pilotari onenetakoa da. Amateur mailan Antiguako torneoa irabazi zuen eta Zumarragak lortu zituen bi herriarteko txapelketetan parte hartu zuen. Profesionaletara pasa zen eta, pilotari gogorra izanik, 16 urte eman zituen onenen artean.



Erostarbe Araotzen ondoko auzo batean jaio zen eta bertan hasi zen pilotan. "Pilotaleku txiki bat besterik ez zegoenez, pilotan egiten genuen. Aitak hemen lan egiten zuen eta urte batzuk apopilo eman zituen gu etorri ginen arte".

Zumarragan ere pilotan jarraitu zuen. "Hemen beste aukera batzuk ere bazeuden, baina gehienbat pilotan aritzen nintzen. Makina bat ordu sartzen genituen frontoian. Topera egoten zen eta izkina bat hartzearekin gustura. Orain baino askoz ere jende gehiagok jokatzen zuen eta gehienok eskuz gainera".

Luistarrek txapelketa antolatzen zuten Zumarragan eta Erostarbek 14 urterekin parte hartu zuen lehen aldiz, koadrilako Jose Mari Suduperekin. "Lehen urtean

finalera iritsi ginen, baina zigor ederra eman ziguten", oroitzen du.

Emaitza onak lehiatzen jarraitzeko indarra eman zion nonbait eta Erostarbek emaitza bikainak lortu zituen amateur mailan. "Herriartekoa bi aldiz irabazi genuen, Antiguakoa, Elgetakoa eta GRAVN torneoa ere bai...".

Halako emaitza onekin, berehala lortu zuen profesionaletara pasatzeko aukera. "18 urterekin pasatu nintzen, gazteen pasatu direnen artean izango naiz. 16 urte egon nintzen profesionaletan, baina soldadu nengoela tuberkulosia izan nuen eta denbora mordoa jokatu gabe egon nintzen", dio.

Horrenbeste urtetan lehiatzeko, esku onak izan behar... "Eskuekin zortea izan nuen. Nire lesioak bestelakoak ziren: muskulu lodikoa nintzen eta zaintiratuak izaten nituen. Garai hartan oso garrantzitsua zen eskuekin zortea izatea, jokatutako partida bakoitzeko kobratzen baikenuen. Orain hobeto daude, gizarte segurantza eta guzti".

Erostarbe jokalari gogorra zen. "Aurrelaria nintzen, baina ez oso abila: indarra zen nire arma nagusia". Profesionaletan partida asko jokatu arren, ez zuen txapelik lortu. "Orduan apenas zegoen txapelketarik: buruzburukoa eta binakakoa bakarrik. Garai hartan festibalak jokatzen ziren batik bat. Bigarren mailan gelditu nintzen eta ez nuen txapelketak jokatzerik izan".

"Herriarteko txapelketakoak eta Antiguako torneoa irabazi nuenekoa dira oroitzapen onenak"



Ezkerretik bigarrena, Zelai-Arizti pilotalekuan txapelketa bat irabazi ondoren.

Dena den, garai hartako pilotari onenekin jokatzeko aukera izan zuen. "Onenek ere behera egiten dutenez, Tapiarekin, Anduezarekin, Orejarekin, Naldarekin... jokatu nuen". Hala ere, oroitzapenik gozoenak amateur mailakoak ditu. "Herriarteko txapelketakoak eta 17 urterekin, Salbidearekin, Antiguako torneoa irabazi nuenekoa dira oroitzapen onenak. Garai hartan herriartekoak garrantzi handia zuen eta pilotalekua bete egiten zen. Bigarren edizioa eta hirugarrena irabazi genituen eta sekulako harrera egin ziguten. Kapotarik gabeko autoan eraman gintuzten udaletxera".

Zumarragako frontoiek ere ez zuten kapotarik garai hartan... "Zelai-Ariztin jokatua nago, baina gero Urretxun hasi ginen. Izan ere, Zumarragan eguraldiaren menpe geunden eta sarrera kobratzeko ere ez zen egokia. Urretxukoak primeran portatu ziren gurekin. Eurek garai hartan ez zuten gurea bezain talde indartsua eta gu animatzera etortzen ziren. Entrenatu ere Ederrena zaharrean egiten nuen", azaldu du.

Garai bateko entrenamendu saioak egungoen oso ezberdinak ziren. "Gure kabuz ibiltzen ginen, orduan ez zegoen pilota eskolarik. Pilotalekura joan eta han ibili, mendira joan... Prestaketa aldetik, egungoak atletak dira. Enpresan bertan medikuak eta prestatzaileak dituzte. Nahiz eta partidarik ez izan, astea programatuta dute", dio Agustin Erostarbek.

Pena bakarra gelditu zaio: gorago heldu ez izana. "Kontuan izan behar da abilezia handirik ez nuela eta, gainera, urte haietan atxikiaren kontua tokatu zitzaidala. 32 urterekin nerbio gabe nengoen

jada. Guk normal egiten genuen eta beste askok, berriz, harrika. Horrek etsi egiten du, ez zen pilota sanoa. Amorru handia ematen zuen: sekulako sakea atera eta haiek airez sartu eta zuzenean bi paretak egiten zituzten. *Nola atera behar dut nik?*, pentsatzen nuen. Oreja IIIak pena handia ematen zidan. Pilotari onena bera zen, baina moral aldetik ahula zen eta harrikada haiekin etsita egoten zen. Urte oso txarrak izan ziren haiek pilotarentzat. Enpresentzat ez, ordea: Arroyo ikustera jende asko joaten

"Urte haietan atxikiaren kontua tokatu zitzaidan. Guk normal egiten genuen eta beste askok, berriz, harrika"

zen, baina hura ez zen pilota, ikuskizun hutsa baizik".

Erostarbek 80ko hamarkada bukaeran utzi zuen pilota profesionala. "Enpresak urte pare bat gehiago jarraitzeko eskatu zidan, baina pilotaz nekatuta eta Ikastolako lanarekin gustura nengoela esan nien. Gainera, garai txarra izan zen: pilotalekura jende gutxi joaten zen eta gaiztoa. Diru gutxi zutenak eta asko jokatu nahi zutenak joaten ziren".


Utzi zuenetik, gutxi jokatu du. "Bi hernia diskal ditut eta udan pixka bat ibiltzen naiz, baina nerbio ziatikoa hartzen dit eta gaizki pasatzen dut. Esku pilota oso gogorra da eta gerriko zer edo zer izanez gero, ez da komeni jokatzea".



Eskubitara, bere bizitzako lehenengo sarietako bat jasotzen.



Agustin Erostarbe, Aitor Gabilondorekin.



Alex Areizaga

Informatika

Mozilla Firefox software libreko nabigatzailea nola hobetu

Mozilla Firefox, Interneteko nabigatzaile bat da, Explorer-aren modukoa. Explorer-a Microsoft-ena da eta Firefox, aldiz, software librekoa. Honela, euskarazko bertsioan deskarga dezakegu honako helbidean: **www.librezale.org/mozilla/firefox**. Firefox-ek, abantaila ugari ditu Explorer-arekiko. Besteak beste, doakoa da eta interneten leiho berriak irekitzeko nahikoa da nabigatzailea irekia dugunean **Cntrl+T** sakatzea pantailan beste pestaña bat irekitzeko. Hala ere, puntu ahulak ere baditu Firefox-ek; erabiltzean Microsoft ekipoetan memoria kopuru handia kontsumitzen duela esaterako. Hau ekiditeko, Firefox-a ireki, eta helbideen barran **about:config** idatzi eta **return** sakatu. Ondoren, pantailaren gainean eskuin botoiari eman eta **berria-boolearra** sakatu. Hemen, **config.trim_on_minimize** idatzi eta ondoren, hurrengo leihoan **true** sakatu. Azkenik, itxi leiho guztiak eta abiarazi Firefox berriro.



Miren Arrieta

Osasuna

STG-Sexu Transmisiozko Gaixotasunak

Europa mailan, eritasun kutsakorren bigarren sorburu garrantzitsuena dira, arnas bidez kutsatutakoen atzetik. Honek guztiak zerikusia dauka antisorgailuen erabilerarekin, gehienetan hauek haurdunaldia eragozteko erabiltzen baitira, STG-ei garrantzirik eman gabe. Kontuan izan beharrekoa da, norberaren orientazio sexualaren independentziarekin, gaixotasun benereoengandik babesten duen bakarra dela preserbatiboa. Gaztetxoenen artean erabiliena izan beharko litzateke, baina ez hauen artean soilik. Izan ere, azken ikerketan arabera, 30 urte ingurukoen artean asko igo da IHES-aren transmisio tasa. Hala ere, ezin ahaztu beste zenbait gaixotasun kutxa daitezkeela sexu bidez: herpes genitala, sifilia, Papiloma birusak sortutako garatxoak (uteroaren lepoko minbiziaren aitzindaria). Beraz, erabili burua eta jarri preserbatiboa!

Estetoskopioa

Udazken eta udaberriro gaiztotzen zait urdaileko ultzera. Larri joaten naiz medikuarengana. *Doctor Aginaga*k beti esaten dit gauza bera "maizago ikusi nahi zintuzket, Andres". "Zaude horretan!" pentsatzen dut. Esatera ausartuko naiz egunen batean. Agian. "Adinean gora zoaz eta anbulatorioan ere jaso nahi dugu zure historia!". Isilik egoteko aukera ederra galtzen du. Eta nik ez dut pentsatu ere egin nahi izaten burura zer etortzen zaidan. Auskultatzeko aparatua zintzilik izaten du eta entzungo didan beldur.

Azkenekoan gehiegi zekiela uste izan zuen, "oraindik neguak bereak eman ez eta, zer du urdail horrek?". "Lozorroan dago oraingoz, eta dagoela gainera! Hankak hasi zaizkit nagitzen. Bi harri koxkor". Adin batetik aurrera... "zirkulazioagatik izan daiteke". Dena.

"Ibiltzea komeniko zait". "Kalterik ez dizu egingo! Halere...". "Ez diet aldaparik emango belaunei - aurreratu egin nintzaion - akerren moduan ibilitakoa naiz eta gehiegikeriak ordaindu behar". "Horixe esan behar nizun, ahal dela maldarik ez" ezin jakin nik entzuten nion pentsamendua edo bera zen adi zegoena. "Gorakoan arnasa estutzen zait gainera" ni neurean. "Hemen baduzue lauan ibiltzeko bizikletarik gabeko...": diagnosia eta bilatzen nuen erremedioa bermatuta.

Bada ezpada, "ea zer dioten birikok! Eseri kamila izkinan, faborez". "Ez da beharrezkoa - entzun nahi nuena esateko betarik ezin galdu, harira zetorren edo ez pentsatu gabe - Bidegorrira joatea aginduz gero sendatuko naiz". "Askatu alkandora eta sakon hartu arnasa". "Hhhhh, pufff, Bidegorrira orduan. Hhhhh, pufff, ordubete egunean. Hhhh, pufff, euri, trumoi, elur... dagoen eguraldia dagoela, Hhhhh, puff, konpainia onean bakarrik baino hobeto beti ere. Hhhh, puff..." Agerikoa. "Sasoi betean zaude, Andres! Esango nuke pasiorako laguna aukeratua duzula eta aitzakia bila zabiltzala". Agerikoegia. Beti pentsatu izan dut estetoskopioak arriskutsuak direla: sentitzen duguna entzuten dute. Nik baino garrantzia gutxiago eman zion hanketako astuntasunari eta "udaberrira arte! Aurrez Bidegorrian topo egiten ez badugu behintzat!". "Hau da eguzkitxo goxoa!" ezjakintasuna agertu geroko harridura sinesgarria izango bada. "Pasiorako aprobetxatzen dugu guk", badakizu *gu* zeintzuk diren, baita *gu* horiei itxarongo diela argi utzi nahi dizula ere, baina harridura azaldu. "Bai kasualitate polita egun politago baterako! Poztu nau zu ikusteak, Manuela". "Baita neu ere, Andres! - puztu, piztu eta poztu begiak - Jubilatuetako lagun taldeak karta-jokora joan aurretik Bidegorrirako ohitura hartu dugu. Eskuko behatzekin konta daitezke kale egindako egunak". "Ezin kontatu zu ikustearen poza, Manuela", agerikoa izan ala ez izan, dagoeneko ez dago hor koxka. "Zer gauza esaten dizkidazun! - hasi da *gu*a *ni*ra mugatzen - Ohitura onik ez duzu galdu!". "Zuk ere ez graziarik". "Zalamero halakoa!" ez da hotza izan masailak gorritu dizkiona. "Zeri begira egon ote nintzen?". "Beste denei! Ederra zinen bada!" akaso hotzak gorritu dizkio masailak. Baina ez galdu aukerarik, "ederra zu, Manuela. Oraindik ez gabiltza berandu, zuk... Arratsaldeon Rafael - aukera ederra galdua - Manuelari ari nintzaion kontatzen, ahateei jaten eman bitartean, *Doctor Aginaga*renean izan nintzela. Zirkulazio txarra dudala, aldaparik ez zaidala komeni... Eguerdian Bidegorrira etortzeko agindu dit. Manuelak esan dit hiruretan Lorentza, Anton, Pako, Jose Luis, Maria... zubi ondoko bankuan elkartzen zaretela...". Rafaelek ez zuen pentsatzen ari nintzena entzun. Ezta Manuelak sentitzen nuenik ere. Ez dut pentsatu nahi zer pasa zitzaion burutik, entzungo balit ere... "Maizago ikusi nahi zintuzket, Manuela. Adinean aurrera goaz eta nire historia zurekin bete nahi nuke. Esango nuke pasiorako laguntzat aukeratu zaitudala". Ausartuko naiz egunen batean. Bihar, *Doctor Aginaga*rengana joan eta auskultatu ondoren estetoskopioa lapurtzen diodanean. Ea behingoz maizago ikusi nahi nauela esateari uzten dion!

Amaia Artolazabal

Javier García de Andoin



Urretxun jaio zen, baina gero Zumarragara joan zen gurasoekin: Apaolaza erlojudenda gainera. Ezkondu ondoren itzuli zen bere jaioterrira. La Sallen hasi zituen ikasketak eta Joxe Mari Iparragirre institutua estreinatu zuteneko bat da. 18 urterekin enpresentzat saltzaile lanetan hasi zen, bere aitarekin batera. Duela 14 urte bihotzekoa izan zuen eta lan egiteari utzi behar izan zion. Casinoko zuzendaritzako kidea izan zen eta zortzi urte daramatza Goierriko elkarteko lehendakari postuan. 2007an Euskal Herriko itzuliaren irteera antolatuko dute.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolaria. La Sallen jokatzen nuen eta nahiko abila nintzen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Bihotzekoa izan ondoren, denbora asko dut. Denbora librearen %90 Goierriri ematen diot. Diabetikoen Urgadiel elkarteko kidea ere banaiz. Asteburuan, berriz, bizikletan ibiltzea atsegin dut.

Bizitzeko toki bat?

Urretxu. Emaztea Donostiakoa da eta duela urte batzuk bertara joatekotan izan ginen, baina oso gogorra egingo litzaidake.

Gustuko kirola eta kirolaria?

Futbola. Jokalari kuttunena Athletic-en jokatzen zuen Dani dut.

Gustuko txirrindularia?

Joseba Beloki oso gustukoa dut. Santa Barbarako sari banaketara etorri zen behin eta berarekin argazkia atera nuen.

Kirola egiteko, ikusteko ala antolatzeko nahiago?

Ikustea ere atsegin dut. Areto futbola, saskibaloia eta pilota ikusten ditut gustuen.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

Egindako azken oparia?

Emazteari lehengoan erositako gona eta poltsa.

Eta jasotakoa?

Seme-alabek oparitutako CDa. Musika asko atsegin dut.

Data bat?

Duela 14 urteko San Martin eguna nire bizitzako garrantzitsuena izan zen. Bihotzekoa izan nuen eta 8.00etan kirofanora jaitsi ninduten. Esnatu nintzenean, bigarrengoz jaiotzea izan zen. Izan ere, oso operazio zaila izan zen: diabetikoa naiz, lau *by-pass* egin zizkidaten... Eskerrak eman beharrean naiz.

Neska eta mutil izen bana?

Txaro eta Xabier.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Elkartean hartzen ditugunak: Noticias de Gipuzkoa eta DV. Etxera Hitza bidaltzen dute eta seme-alabek itzultzen didate.

Gustuko telebista saioa?

Dokumentalak atsegin ditut gehienbat.

Bereziki gorroto duzuna?

Azkenaldian asko ikusten diren horiek: *Salsa rosa*-eta. Diruaren truke trapu zaharrak ateratzea izugarria iruditzen zait.

Liburu bat?

Irakurtzeko alferra izan naiz beti. Prentsa soilik irakurtzen dut.

Abesti bat?

La oreja de Van Gogh taldearenak. Donostiako kontzertuan izan nintzen.

Soinu bat?

Bateriarena. Urte askotan atabala jo nuen Lurra dantza taldearekin eta Urretxuko txistulariekin. Legazpiko Korosti taldearekin ere jo nuen. Santi zenarekin ikasi nuen.

Usain bat?

Arrosarena.

Janari bat?

Usoa. Ez naiz ehiztaria, baina lagunak bai.

Ura ala...

Sagardoa. Jatetxeetan ere sagardoa eskatzen dut.



Badoa zaharra,

badator berria

izan dadila,

zorionaren iturria.

URRETXU
ZUMARRAGA
IKASTOLA

URRETXU - ZUMARRAGA IKASTOLA

Euskadi

CONFORT auto

ZUAUTO

autokonponketa azkarra
neumatikoak prezio ezin hobean
zure autoarentzat zerbitzu guztiak



Euskal Herria hiribidea z/g - ZUMARRAGA

Telefono eta fax: 943 72 54 48